

EGUNEAN ZEHAR ZAINZAILIAK ATSEDEN HARTZEKO ARRETA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 65+ mendekotasuna > Eguneko zentro baterako sarbidea

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Mendekotasunen bat duten pertsonen (I., II. edo III. gradukoa) aldi baterako zentro edo eguneko zerbitzuetarako sarbidea eskaintzen zaie ([2.5 fitxa](#)). Helburua da zainzaileak atsedenerako, aisialdirako eta bere burua zaintzeko denbora pertsonala izatea. Zainzaileak ere jo dezake zerbitzura, bere eginkizuna aldi baterako betetzea eragozten dion egoera batean dagoelako (bajan dago, oportetara joan behar du...). Aldi baterako prestazioa ematen den zentro edo eguneko zerbitzuari dagokion zerbitzua da eskaintzen dena.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Edozein mendekotasun-gradu duten pertsonen zainzaile nagusiak eta senideak, atsedena behar dutenak. (I., II, III. Graduak- 25 puntu edo gehiago Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan).

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- Mendekotasuna duen pertsona eta zainzailea etxebizitza berean eta dagokion lurralde historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea.
- Mendekotasuna duen pertsona eta zainzailea etxebizitza berean erroldatuta egotea 12 hilabetez eta eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan.
- Atsedeen-egonaldia egingo den eguneko arreta-zerbitzura sartzeko baldintzak betetzea.
- Zainzailea eta mendekotasuna duen pertsona elkarrekin bizi direla egiaztatzea, zainketak Udaleko Gizarte Zerbitzuen txostenaren bidez justifikatzen badira.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru Aldundien ardura da zerbitzua ematea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Egunean zehar zaintzaileak atsedean hartzeko arreta Araban](#)
- [Egunean zehar zaintzaileak atsedean hartzeko arreta Bizkaian](#)
- [Egunean zehar zaintzaileak atsedean hartzeko arreta Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)